

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Inplikaturako administrazioak</i> | | <i>Azalpena</i> |
|--------------------|-----------------|------------|--------------------------------------|----------------------------|--|
| 29/2012 | R18/2015 | 04-11-2015 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | IRPF. SZ. BEZ. IRNR. Araudiak emateko eta ikuskapenerako Administrazio eskuduna. Demandaturako Administrazioari amare ematea. |

R 18/2015 Ebazpena
29/2012 Espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2015eko azaroaren 4an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

HITZARTU DUTE

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako eskumen-gatazkaren inguruan. Hori 1. ERAKUNDEAREN (IFZ ----) 2007 eta 2010 arteko sozietateen gaineko zergaren, balio erantsiaren gaineko zergaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arau-emate zein ikuskapen-eskumenari buruzkoa da, eta 29/2012 espediente-zenbakiarekin izapidetzen da Arbitraje Batzordearen aurrean, Gabriel Casado Ollero jauna txostengile duela.

I. AURREKARIAK

1.- Gatazka hau Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) aurkeztu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (AEAT) aurrean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen 2012ko irailaren 26ko idazkiaren bidez. Idazkia hilaren 27an erregistratu zen Arbitraje Batzordean.

Bere aurkezpen-idazkian, Bizkaiko Foru Aldundiak honako hau aitortzeko eskatzen dio Arbitraje Batzordeari: «1. ERAKUNDEAREN (IFZ ----) 2007 eta

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Inplikaturako administrazioak</i> | | <i>Azalpena</i> |
|--------------------|-----------------|------------|--------------------------------------|----------------------------|--|
| 29/2012 | R18/2015 | 04-11-2015 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | IRPF. SZ. BEZ. IRNR. Araudiak emateko eta ikuskapenerako Administrazio eskuduna. Demandatutako Administrazioari amare ematea. |

2010 arteko konturako atxikipenen, sozietateen gaineko zergaren, balio erantsiaren gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arau-emate zein ikuskapen-eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokiola, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera».

2.- 2015eko martxoaren 2ko saioan, Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidea onartzea adostu zuen. Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak alegazioak aurkeztu zituen 2015eko apirilaren 23an prestatutako eta maiatzaren 15ean aurkeztutako idazkiaren bidez; Bizkaiko Foru Aldundiak 2015eko uztailaren 22ko idazkiaren bidez aurkeztu zituen eta, azkenik, 1. ERAKUNDEAK 2015eko uztailaren 22an Posta Zerbitzuan zigilatutako idazkiaren bidez aurkeztu zituen, 2014ko azaroaren 21eko Posta Zerbitzuaren zigilua zuen aurreko idazkira lotuta.

3.- Espedientetik honako aurrekari esanguratsu hauek ateratzen dira, gatazka konpontzeko:

- a) 1. ERAKUNDEA (aurrerantzean, «erakundea») Bilbon eratu zen, 2002ko uztailaren 26an, bere egoitza soziala Bilbon ezarrita, eta bere helbide fiskala egoitza sozialaren egoitza beran aitortuta. Bere xede soziala enpresen sustapena da, euren kapital sozialean parte-hartuta, parte hartutako sozietateek igorritako errenta finkoko tituluak harpidetuta, horiei kredituak emanda eta parte hartutako sozietateei aholkularitza eta laguntza teknikoa emanda.
- b) Zituen frogen arabera, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak ulertu zuen zergapekoaren helbide fiskala modu okerrean Bilbon aitortuta zegoela, eta Madrilen kokatu behar zela iruditu zitzaion; izan ere, bertan dago zentralizatuta sozietatearen kudeaketa administratiboa eta

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Inplikaturako administrazioak</i> | | <i>Azalpena</i> |
|--------------------|-----------------|------------|--------------------------------------|----------------------------|--|
| 29/2012 | R18/2015 | 04-11-2015 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | IRPF. SZ. BEZ. IRNR. Araudiak emateko eta ikuskapenerako Administrazio eskuduna. Demandaturako Administrazioari amore ematea. |

negozioen zuzendaritza. Horren ondorioz, 2008ko maiatzaren 21ean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzordearen aurrean, sortu zenetik, erakundearen helbide fiskala Madrilen izan zela aitortu zezan.

c) 33/2008 espedientean emandako 2011ko abenduaren 22ko R 29/2011 ebazpenaren bidez, Arbitraje Batzordeak balioetsi egin zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren uzia, 1. ERAKUNDEA sozietatearen helbide fiskala ez zela inoiz Bilbon izan eta, aldiz, Madrilen izan zela adieraziz. Izan ere, bere ustez, frogatuta zegoen «gatazka honetako erakunde interesdunaren kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza Madrilen dagoela, sortu zenetik». Ebazpen hori betez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erakundearen helbide fiskala Madrilgo 1. HELBIDERA aldatu zuen, 2002ko uztailaren 26ko eraketa-datarako atzeraeraginarekin, egoitza soziala Bilbon mantenduta.

d) 2012ko uztailaren 6an, zergapekoak idazkia aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean, honako hau jakinaraziz: «... 2012ko uztailaren 2an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziako Zergadun Handien Ordezkaritza Nagusiak 1. ERAKUNDEARI jakinarazi nahi izan dio honako kontzeptu hauen egiaztapen- eta ikerkuntza-jarduera orokorren hasiera, 1. HELBIDEKO helbidean:

- Sozietateen gaineko zerga (2007tik 2010era).
- Balio erantsiaren gaineko zerga (2008/06tik 2010/12ra).
- Lanaren/profesionalaren etekinen konturako atxikipena/diru-sarrera (2008/06tik 2010/12ra).
- Ez-egoiliarren ezarpenen konturako atxikipenak (2008/06tik 2010/12ra).

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Inplikaturako administrazioak</i> | | <i>Azalpena</i> |
|--------------------|-----------------|------------|--------------------------------------|-------------------------|---|
| 29/2012 | R18/2015 | 04-11-2015 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | IRPF. SZ. BEZ. IRNR. Araudiak emateko eta ikuskapenerako Administrazio eskuduna. Demandatutako Administrazioari amore ematea. |

Horren ondorioz, horrek eskatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari inhibizio-errekerimendua jartzea, «horrek egiaztatu nahi dituen tributuen ikuskapenerako eskumena erreklamaturata».

- e) 2012ko uztailaren 26an, Bizkaiko Foru Aldundiak inhibizio-errekerimendua jarri zion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, aurretik zerrendatutako tributuen eta aldien ikuskapenerako eskumenari dagokionez, «izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio 1. ERAKUNDEAREN (IFZ: ----) ikuskapen-eskumena. 2007 eta 2010 arteko sozietateen gaineko zergarako, balio erantsiaren gaineko zergarako, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarako eta konturako atxikipenetarako».

Zerga Agentziaren ustez, inhibizio-errekerimendu horren edukitik ondorioztatzen da, Bizkaiko Foru Aldundiak interpretatzen duela Arbitraje Batzordeak adostutako helbide fiskalaren aldaketak 2007/01/01era arte soilik dituela eraginak; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera, «... Aipaturako Ebazpenak oinarri dituen ekintzak aldi oso zehatz batean gertatu ziren. Aldi hori ez zen inola ere 2007ko urtarrilaren 1aren ondoren luzatu».

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak zergapekoak 2012ko martxoaren 12an aurkeztutako zentsu-aitorpenaren 036 eredu onartu zuen; bertan, horrek aitortzen du bere helbide fiskala Bizkaira aldatzen duela berriz, zehazki adieraziz, aurkeztutako zentsu-ereduan «2007ko urtarrilaren 1eko atzeraeraginarekin» adierazi zuela.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Inplikaturako administrazioak</i> | | <i>Azalpena</i> |
|--------------------|-----------------|------------|--------------------------------------|----------------------------|--|
| 29/2012 | R18/2015 | 04-11-2015 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | IRPF. SZ. BEZ. IRNR. Araudiak emateko eta ikuskapenerako Administrazio eskuduna. Demandatutako Administrazioari amore ematea. |

- f) Zerga Administrazioko Estatu Agentziak aipatutako inhibizio-errekerimendua ukatu zuen 2012ko abuztuaren 27an; izan ere, bere ustez, eskumen eztabaidagarria zehazteko funtsezko konexio-puntua zergapekoaren helbide fiskala dela egia izanda, hori Madrilen kokatutzat jo behar zen 2007 eta 2010 artean, ez baitzegoen frogatuta Arbitraje Batzordeak zergapekoaren helbide fiskala sortu zenetik Madrilen zegoela zehazteko kontuan izandako zirkunstantzietan inolako aldaketarik izan zenik ekitaldi horietan.

4.- 2011ko abenduaren 22ko R 29/2011 Arbitraje Batzordearen ebazpenaren aurka, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka aurkeztutako eskumen-gatazka balioetsita, Bizkaiko Foru Aldundiak eta 1. ERAKUNDEA erakundeak 256/2012 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuten. Auzitegi Gorenak balioztatu egin zuen, maiatzaren 5eko 1879/2014 Epaiari; izan ere, bere ustez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak aurkeztutako gatazka desagokia zen eta, ondorioz, errekurtsoa jarritako arbitraje-ebazpena baliogabea zen. Beraz, ez zen beharrezkoa izan Auzitegiak inolako erabakirik adieraztea errekurtsoa jarri zutenek aurkeztutako funtsezko gaien inguruan.

5.- Zuzendari nagusiak 2015eko apirilaren 23an prestatutako eta 2015eko maiatzaren 15ean erregistratutako idazkiaren bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adierazten du horrek 1. ERAKUNDEAREN inguruko egiaztapen-jarduerak hasi zituela, 2007 eta 2010 arteko sozietateen gaineko zergaren, balio erantsiaren gaineko zergaren, PFEZen konturako atxikipenen eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren inguruan, «izan ere, Arbitraje Batzordearen arabera, zergapekoak Madrilen zuen helbide fiskala, eta helbide fiskala zen funtsezko konexio-puntua, ikuskapen-eskumena zehazteko. Nolanahi ere -eransten du Zerga Administrazioko Estatu Agentziak-, 2014/05/05eko Auzitegi Gorenaren Epaiari Arbitraje Batzordearen Ebazpena

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Inplikaturako administrazioak</i> | | <i>Azalpena</i> |
|--------------------|-----------------|------------|--------------------------------------|-------------------------|---|
| 29/2012 | R18/2015 | 04-11-2015 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | IRPF. SZ. BEZ. IRNR. Araudiak emateko eta ikuskapenerako Administrazio eskuduna. Demandaturako Administrazioari amore ematea. |

baliogabetu duenean, zergapekoaren helbide fiskala Bizkaian kokatuta dagoela pentsatu behar da, horrek adierazi bezala. Ondorioz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez luke ikuskapen-jarduerak gauzatzeko eskumenik izango».

Eta Auzitegi Gorenak ebatzitakoaren aurreko interpretazioari jarraiki, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio «Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren amore-ematea onartzea erabakitzeke, horrek 1. ERAKUNDEA (IFZ: ----) zergapekoarekiko ikuskapen-jarduerak gauzatzeko aginpide eza onartu duelako 2007 eta 2010 arteko sozietateen gaineko zergarako, balio erantsiaren gaineko zergarako, PFEZen konturako atxikipenatarako eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarako».

6.- 2015eko uztailaren 22an prestatutako eta egun berean erregistratutako Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen idazkiaren bidez, gatazkaren aurkezpenerako txostenean argudiatutako aurrekari eta zuzenbideko oinarri guztiak berretsi ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziak aurkeztutako alegazio-idazkia aipatu zuen, espedientearen jakinarazpen-izapidean eskuratu ahal izan baitzuen, eta Arbitraje Batzordeari eskatzen dio «Bizkaiko Foru Aldundiak jarritako gatazkan, 2015eko apirilaren 23ko alegazio-idazkian jasotako Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren amore-ematea balioesteko (...) eta aitortzeko 1. ERAKUNDEAREN (IFZ: ----) 2007 eta 2010 arteko konturako atxikipenen, sozietateen gaineko zergaren, balio erantsiaren gaineko zergaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenen eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arau-emate eta ikuskapen-eskumena Bizkaiko Foru Ogasunari dagokiola, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera».

7.- 2015ko uztailaren 22ko posta-zigilua zuen idazkian, 1. ERAKUNDEA erakundeak alegazioak aurkeztu zituen. Horietan adierazten zuen, «2014ko

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Inplikaturako administrazioak</i> | | <i>Azalpena</i> |
|--------------------|-----------------|------------|--------------------------------------|-------------------------|---|
| 29/2012 | R18/2015 | 04-11-2015 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | IRPF, SZ, BEZ, IRNR. Araudiak emateko eta ikuskapenerako Administrazio eskuduna. Demandatutako Administrazioari amore ematea. |

urriaren 23ko hitzarmenaren bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 1. ERAKUNDEARI jakinarazi ziola, Auzitegi Gorenaren aurreko epaia zela eta, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez duela ikuskapen-erregularizaziorik egin behar, zehazki, honako hau esanda:

«Egiaztapen hori hasteko arrazoia erakunde horrek bere egoitza soziala [helbide fiskala esan beharko luke] Madrilen izateko aukera zen, eta ez Bilbon, aitortu bezala. Alde horretatik, Euskadiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak irizpen hori eman zuen. 2014ko maiatzaren 5eko Auzitegi Gorenaren epaiak hitzarmen hori indargabetu zuen; ondorioz, egiaztapen-jardueretan, erakunde horren helbidea BIZKAIKO Foru Aldundiko lurraldean kokatzen dela ulertzen da, eta ez da Estatuaren erregularizaziorik behar».

Horren arabera, 2014ko azaroaren 21eko aurreko idazkian Arbitraje Batzordeari adierazitakoa errepikatuta, erakundeak adierazten du «helbide fiskala ikuskapen-jarduerak gauzatzeko Administrazio eskuduna zehazteko funtsezko konexio-puntua izanda, zalantzarik gabe, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez duela eskumenik 1. ERAKUNDEAREN 2007 eta 2010 arteko konturako atxikipenei, sozietateen gaineko zergari, BEZari eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari dagokienez»

2015eko apirilaren 23ko alegazioetan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak hori zehazki aitortuta, hasitako ikuskapen-jarduerak gauzatzeko aginpide eza eta amore-ematea adierazita, erakundeak bere alegazioak amaitzen ditu, Arbitraje Batzordeari eskatuz Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren amore-ematea onartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako 29/2012 gatazkan, azken horrek adierazitako zerga-kontzeptuetarako eta ekitaldietarako ikuskapen-jarduerak gauzatzeko duen eskumena aitortuta.

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Inplikaturako administrazioak</i> | | <i>Azalpena</i> |
|--------------------|-----------------|------------|--------------------------------------|----------------------------|--|
| 29/2012 | R18/2015 | 04-11-2015 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | IRPF. SZ. BEZ. IRNR. Araudiak emateko eta ikuskapenerako Administrazio eskuduna. Demandatutako Administrazioari amare ematea. |

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Argi dago Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka modu desegokian aurkeztea ez onartzeko arrazoia dela berez. Nolanahi ere, modu desegokian aurkeztutako arbitraje-prozedura ez onartzeak ez du berez edo bakarrik konpontzen horietako bat gatazka sustatzera bultzatu zuen Administrazioen arteko desadostasuna.

Kasu honetan, abenduaren 22ko R 29/2011 ebazpenak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren uzia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiarekin sortutako gatazkan, 1. ERAKUNDEAREN helbideratzeari dagokionez, 2002ko uztailaren 26an sortu zenetik, Bilbon, bere egoitza sozialean, ez zegoela adierazita eta, aldiz, Madrilen zegoela; izan ere, frogatutzat jotzen zen bertan zeudela erakundearen kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza.

Metodologiako eta prozedura-koherentziako arrazoiak direla eta, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak sustatutako gatazkaren desegokitasuna Auzitegi Gorenak aztertutako lehen aurkaritza-arrazoia izan zen (Cfr. Bigarren Oinarria), 2014ko martxoaren 5eko Epaian. Izan ere, arrazoi horrengatik, Bizkaiko Foru Aldundiak eta 1. ERAKUNDEAK abenduaren 22ko R 29/2011 Arbitraje Batzordearen ebazpenaren aurka jarritako errekurtsioa ebatzi zuen, horren deusezetasuna adierazita, baina erakundearen helbide fiskalaren kokaguneari buruzko funtsezko gaia aztertu gabe (eta ondorioz, epaitu gabea).

2.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adostu zuen «2014/05/05eko Auzitegi Gorenaren Epaiak Arbitraje Batzordearen Ebazpena baliogabetu duenean, zergapekoaren helbide fiskala Bizkaian kokatuta dagoela pentsatu behar dela, horrek adierazi bezala. Ondorioz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez luke ikuskapen-jarduerak gauzatzeko eskumenik izango» (bere alegazio-idazkiaren Zuzenbide Bakarreko Oinarria); Arbitraje Batzordeari

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Inplikaturako administrazioak</i> | | <i>Azalpena</i> |
|--------------------|-----------------|------------|--------------------------------------|----------------------------|---|
| 29/2012 | R18/2015 | 04-11-2015 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | IRPF, SZ, BEZ, IRNR. Araudiak emateko eta ikuskapenerako Administrazio eskuduna. Demandaturako Administrazioari amore ematea. |

eskatuta Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako gatazkaren amore-ematea onartzea ebazteko.

3.- Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren (EIABA) 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, «Arbitraje Batzordearen deialdiei, eraketari, bilkurei, ebazpen-hartzeari, funtzionamenduko araubideari eta prozedurari dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraituko zaio».

4.- Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 91. artikuluen 2. atalak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, ezartzen du «Administrazioak bete-betean onartuko duela atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango duela prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek».

5.- Amore ematearen irudia 30/1992 Legean aurreikusita ez badago ere (horri lotzen zaio EIABAREN 8. artikulua, jarduteko araubidearekin zerkusia duen ororako), atzera egitea aurreikusten da, prozedura amaitzeko modu bezala (30/1992 Legearen 91.2 artikulua). Batzordeak aplikatu du dagoeneko modu hori, gatazka jasandako Administrazioak Administrazio sustatzailearen uzia zehazki konpondu zuen espedienteetan (hala nola, abenduaren 20ko R 3/2010 Ebazpena, 34/2008 espedientea; maiatzaren 26ko R 16/2011 Ebazpena, 25/2010 espedientea; urriaren 13ko R 3/2014 Ebazpena, 88/2011 espedientea eta abenduaren 19ko R 8/2014 Ebazpena, 90/2011 eta 96/2011 espedienteak). Antzeko arrazoiak direla eta, honetan ere hori aplikatu behar dugu.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

| <i>Espedientea</i> | <i>Ebazpena</i> | | <i>Inplikaturako administrazioak</i> | | <i>Azalpena</i> |
|--------------------|-----------------|------------|--------------------------------------|----------------------------|--|
| 29/2012 | R18/2015 | 04-11-2015 | Bizkaiko Foru Aldundia | Estatuko Administrazioa | IRPF. SZ. BEZ. IRNR. Araudiak emateko eta ikuskapenerako Administrazio eskuduna. Demandaturako Administrazioari amore ematea. |

HONAKO HAU ERABAKI DU

1.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren amore-ematea onartzea Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako 29/2012 gatazkan, 1. ERAKUNDEAREN 2007 eta 2010 arteko sozietateen gaineko zergaren, balio erantsiaren gaineko zergaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arau-emate eta ikuskapen-eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokiola onartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera.

2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea.

3.- Hitzarmen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta 1. ERAKUNDEARI jakinaraztea.